



63. zk | 2015eko abendua

# Berbarotarra

365 + 1  
*motitek*



## 50. urteurrena ederra izan DA!

Parte-hartze handia eta giro magikoa izan dira Saguganbaran

Atzera begiratzuz, aurrera jarraitzeko ilusioak bete egin du Saguganbara. Berbaro Elkarteak kudeatutako gune honek euskal kulturaren transmisioa lantzea du helburu. Aurtengo egitaraua oparoa izan da, eta ekintzetan txiki eta handiak batu dira, bi aretoek gainezka egin arte.







## 26 urte ume eta gazteengan irakurzaletasuna bultzatzen

Aurten 26. aldiz burutu dugu Haur Literatur Aretoa, eta aurreko urteetako joerari igaro da Durangaldeko hainbat herritatik; besteak beste, Zornotza, Elorrio, Zaldibar eta Durangotik. Azaroaren 13an Zornotzan hasi eta abenduaren 18an Durangon bukatu da. Guztira, 15 ikastetxetako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hartu dute parte. Umeak eta gazteak pozik eta gustura aritu dira euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea helburu duten ekintzetan parte

hartzen, hala nola liburuen erakusketa girotuetan, idazleekin izandako solasaldietan, ipuinak entzuten, ipuin antzeztuak zein antzerkiak ikusten, liburu erraldoietan ipuin berriak sortuz artista sena erakusten...

Guztira, 5.200 ume eta gazte inguru izan dira; 10.400 begi ipuinei begira; 10.400 esku liburuak ukitzen, aztertzen... Eskerrik asko parte-hartzaile guzti-guztiei, eta jarraitu ikastetxean, etxean, kalean zein edozein tokitan, literaturaz gozatzen!!!

## Haurliteraturaretoa.eus

[haurliteraturaretoa.eus](http://haurliteraturaretoa.eus) ataria aurkeztu genuen irailaren 23an Plateruenean. Haur Literatur Aretoa sareratu dugu aurten eta bagabiltza astiro-astiro webgunearen barruak betetzen. Hainbat informazio eskuratu dezakegu bertan: HLAren ekitaldien agenda, antzerki eta ipuin antzeztuen berri, material didaktikoa, haur eta gazte literaturako liburuen bilatzailea...

Haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko bidean urrats bat gehiago egin gura izan dugu webgune honekin. Liburuen informazioa eskura izateaz gain, berauetan lantzen direnak haur eta gazteekin era erraz batean jorratzeko tresnak eskaintzen baititugu bertan.



## Laster arte, Meri; ondo etorri, Maite

Bentana ondoko mahaitxoan dago, isilik. Kafea hartzeko orduan, fruitu gorrien infusio beroak eragindako lurrunaren artean ezkutatu da. Putz egin du, lurruna desegin eta hor ageri da, irribarrez. Berdin da zenbat ordu eman dituen Berbaron lankide, berdin zenbat infusio hartu duen. Fruitu gorriena barreiatu da, baina zeure egiteko modu zoli atseginak sortutako lurruna ondo itsatsita dugu, elkartearen airean

zabaldu baita beste denok busti gaitezen. Eskerrik asko, Meri. Bueltan da Berbaro inguruko ume eta gazte askoren ezaguna, haiekin hamaikatxo ordu elkarrekin gozo igarotakoa. Eskarmentuz joan zen, eskarmentu gosez. Eta eskarmentuak emandako ahalmenez itzuli da, bera ere, Meriren lurrunaz bustiko delakoan. Beti izan dugu gertu. Orain gertuago egoteko esperantza dugu. Ondo etorri, Maite.



# Euskarak 365 egun

Abenduaren 3aren bueltan, Euskararen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, Euskarak 365 egun kanpaina jarri dugu martxan, beste behin. Aurtengoa Berbaro Taldeak sortu eta ondoren, Topagunearen bidez, Euskal Herri osora zabaldutako egitasmoaren bosgarren edizioa izan da, eta aurreko urteetako kanpainari jarraiki, euskara egun bakarrean barik, urteko 365 egunetan erabiltzeko aldarrikapena egitea izan du helburu.

Hala, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, kartel zuri-berdez jantzi dugu Durangaldea, hainbat eragileren laguntzarekin. ErabiZi izan da aurtengo azpileloa, eta hitz-joko horren bitartez, urtero legez erabilerari erreferentzia egiteaz gain, euskaraz bizitzeko gonbidapena egitea izan da xedea.



## Aulkiak oinarri Euskararen Egunean

*Egunero-egunero behar ditugu aulkiak, erabiltzen ditugu aulkiak. Aulkiak baliatzen ditugu lanean, aulkiak ikasteko, aulkiak jolasteko. Baina zertarako balio dute aulki bakarti eta hutsek? Pertsonok egiten ditugu aulkiak erabilgarri. Eta, gutako bakoitzak aulki ugari eduki ditzake, baina aulki batzuk gu baino ez. Bidean denetarik aurki dezakegu: aulki handi zein txikiak, aulki zaharkitu zein modernoagoak, aulki ederrak zein ederragoak. Aulkiak elkarbanatu eta trukatu ditzakegu; beste aulki batzuetan ere jar gaitezke, baina guk gure aulkietatik begiratu gura diogu munduari. Aulkitik altxatuko gara, aulki*

*gainean zutik jartzeko. Harro. Eta jolas egingo dugu gure aulkiarekin, gure hizkuntzarekin, euskararekin, elkarrekin.*

GUKAREN ekimenez, Durangoko alde zaharra aulkiz josita esnatu zen abenduaren 3an eta, egunak aurrera egin ahala, aulki gehiagok hartu zuten kalea, denda zein ikastetxeetako atarietan. Estanta polita gelditu zen. Aulkiak erabili eta zaindu egin behar dira, ordea. Eta horixe egin genuen geuk ere: Andra Mariako elizpea hartzen zuten aulkiak baliatu eta haiek dibertitu ginen, aulkien jolas erraldoian. Ondoren, kantu-poteoarekin borobildu genuen Euskararen Nazioarteko Eguna.

## #365ipuin, mikroipuinen lehiaketa

Ipuin laburrak gustuko ditugu. Begi-bistakoa da, lehiaketa honen emaitza paregabeak ikusita; guztira, 310 ipuin labur, hiru kategoriatan banatuta: Durangaldeko ipuin labur onena (14-16 urte); Durangaldeko ipuin labur onena (17 urtetik gora); eta, Twitterreko ipuin labur onena. Aurtengo irabazleak honako hauek izan dira, hurrenez hurren: Ander Azpitarte, Jon Ander Urkiaga eta Joxe Rojas. Epaimahaikideak, berriz, Lehior Elorriaga, Irati Eguren eta DJ Itsua izan dira. Ipuin gustukoenak aukeratzeaz gain, beste lantxo bat eskatu diegu: ipuin irabazleak oinarri hartuta, bakoitzak lantxo bat egitea, dagokion diziplinan. Lantxo horiek sari-banaketa ekitaldian ikusi genituen, abenduaren 16an, Plateruena kafe antzokian. Hemendik gure esker ona adierazi nahi diegu parte-hartzaile guztiei, epaimahaikideei, eta zelan ez, Hitz, Urriki eta Arteka liburu-dendei, eskainitako laguntzagatik.







# Itzartu

Irailaren bukaeran itzartu ginen; ehun gazte inguru batu ginen Pinondo plazan, helburu argi batekin: lupak hartu, inguru behatu eta hitza hartzea. Nolakoa da Durango? Zer eskaintzen digu 10-14 urte bitarteko nerabeoi? Nondik mugitzen gara? Elkar ezagutzen al dugu? Durangon faltan sumatzen genituenak eta nerabeon nahi eta asmoak aztertu ostean, agerian geratu zen halako proiektu baten beharra, mugikor eta telebistak itzali, litxarreraia zorroak poltsikoetan sartu, elkar ezagutu eta geure aisialdiaz gozatzeko beharra.

Idea ugari batuta, asteburuetako ekin-tza planari ekin diogu. Durangoko jaietako San Fausto egunean, paella itzela prestatu genuen; ostean, zapia eta par-

txea jarrita erreka jaitsieran parte hartzeko. Detektibe lez ere ibili izan ginen, frogak gaintuz eta pistak bilatuz Josefinaren loteria saritu galduaren misterioa argitzeko, eta Landederrara egindako mendi-irteeran ere primeran pasatu genuen. Egun aparta egin zuen mendi buelta eta txitxiburduntzia egiteko. Eta oraindik etortzeko daudenak... Gimkanak, mendi-bueltak, paintballa, txapelketak, irteerak, asteburu-pasak, bazkari zein afariak, abenturazkoak, tertuliak, olimpiadak ...

Anima itzazue etxeko zein inguruko gazteak, eta zeu ere itzarrrik bazaude, hezitzaile-taldean parte hartzeko gogoz, gerturatu duda barik! Hitzartu dugu eta itzartu gara! Martxan da Itzartu!



## Arrosa eta Arantza

365 egunetan, euskarak baditu bere arantzak eta arrosak. Gaur, Durangoko Azokako biharamunean, herria bere egunerokotasunera bueltatu denean, faltan bota ditugu asteburuan Durangoko komertzioetan eta tabernetan ageri-agerian egon diren euskarazko kartelak, euskal musika edota euskal kutsua duen edozer, edonon. *Postureo* hutsa, hainbatean.

Bisitariak desagertu diren moduan desagertu dira euskaraz jarritako oigartekoen aukera zerrenda.

**Arantza** zuentzat, eta zuen moduan egun hauetan horrela jokatu duten guztientzat.

**Arrosa**, EUSKARA 365 DA! egiten duzuenontzat. Beraz, zuek izango zarete gure hautua. Plazera da!

